

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2022ko URTARRILAREN 25eko BILKURAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko urtarrilaren 25eko 12:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jasone Agirre Garitaonandia andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Elsa Fuente andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Iñigo Eguren jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Izaskun Astondoa andrea eta Alazne Camiña andrea – eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna, eta Koordinazio Teknikoko arduraduna, hurrenez hurren– bertaratu dira.

### **Sarrera**

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. 2021eko azaroaren 16an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2022ko Jardueren Urteko Plana onartzea
3. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea
4. 2022ko laguntza eta dirulaguntzen deialdiak egilesteko irizpide orokorrak onartzea
5. 2022ko laguntza eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa
6. Hitzarmen-proposamenak eta zuzeneko dirulaguntzak onartzea
7. Galde-eskeak

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztu aurretik helarazi dela.

### **1. 2021eko azaroaren 16an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2021eko azaroaren 16ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### **2. 2022ko Jardueren Urteko Plana onartzea**

Paul Ortega Etcheverryk hartu du hitza, eta gogorarazi duenez, azaroaren 16ko bilkuran jakinarazitakoaren ildotik, 2018-2021 aldiko IV. Gida Plana lege berria onartzen den arte luzatuko da. Luzapenaldian, IV. Gida Planak ezartzen zituen ikuspegi eta lehentasun estrategikoetan sakontzen jarraituko dugu.

2022ko ekitaldirako jarduketa esanguratsuenak aurkeztu ditu.

Azalpenak eman ondoren, 2022ko Urteko Plana onartu da. Jasone Agirrek komentatu duenez, ez dute astirik izan entregatutako dokumentazioa prestatzeko eta ondo aztertzeko, eta, hori horrela, abstenitu egingo da puntu honen bozketan. Deitutako gainerako pertsonak planaren alde eman dute botoa, eta, horrenbestez, onartu egin da.

### **3. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea**

Izaskun Astondoak hartu du hitza 2022ko Dirulaguntza Plan Estrategikoa aurkezteko, zeinak 7 laguntza-linea biltzen dituen, lankidetzaz zuzeneko ekimenez gain. Planarekin batera, eranskin gisa, 2022ko funts banagarrien proposamena aurkeztu da, zeinean deialdietarako zenbateko globalak eta ehunekoak zehazten diren, eta horrekin batera,

hartutako konpromisoak, eta erakunde eskatzaile bakoitzak lortu ahalko dituen funtsen gehieneko zenbatekoa. Era berean, aurreikusitako eskaeren estimazio bat aurkeztu da aurreko urteetako ehunekoak kontuan izanda.

Alazne Camiñak argitu duenez, aurten zazpi tresna daude, 2021ean baino bat gehiago, programen deialdia dela eta. Paul Ortegak gehitu du programen lehenengo faseak dirukopuru apala duela, identifikazio-fasea soilik biltzen duelako, eta 2023an handiagoa izango da zenbatekoa hori.

2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bozkatu da, Josu Urrutiaren eta Iñigo Egurenen aurkako botoekin, eta Jasone Agirreren eta Elsa Fuenteren abstentzioekin, 2022ko aurrekontuei erreferentzia egiten dien plana delako eta % 0,7aren bidera iristen ez delako. Kontseilu Errektoreko gainerako kideek aldeko botoa eman dutenez, onartutzat eman da plana.

#### **4. 2022ko laguntza eta dirulaguntzen deialdiak egilesteko irizpide orokorrak onartzea**

2022an argitaratzea aurreikusita dauden zazpi deialdien arteko sei egilesteko irizpide orokorrak bozkatu dira, onartuak izateko. Programen deialdiari buruzko zazpigarren deialdiaren irizpideak onartuak izateko aurkeztuko ditu Kontseilu Errektore honek, laguntza horiek arautzen dituen dekretua argitaratu ondoren, zeina une honetan izapidetze-fasean dagoen.

Alazne Camiñak hartu du hitza deialdi bakoitzaren berezitasunak aurkezteko. Aurten funts gehiago izango ditu ekitatearen aldeko prozesuetako tresnak. Espezializazio-bekei dagokienez, bi bekatarako deialdia egingo da, bata ekintza humanitariorako eta bestea generorako.

Josu Urrutiak galdera egin du proiektuen tresnaren 2. kapituluaren baremazioaren inguruan, tokiko bazkiderik ez dagoen kasuan. Alazne Camiñak erantzun dio gertatu litekeela tokiko bazkiderik ez egotea Euskadiko proiektuen kasuan.

Beste galderarik ez dagoenez, bozketa egin da, Jasone Agirreren eta Elsa Fuenteren abstentzioekin. Bertaratutako gainerakoek alde bozkatu dute (Iker Atxa puntu honetan sartu da bileran) eta deialdien irizpide orokorrak onartu dira.

#### **5. 2022ko laguntza eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa**

Alazne Camiñak hartu du hitza aurtengorako aurreikusitako deialdien behin-behieneko egutegia aurkezteko, buletinean noiz argitaratuko den zain. Kontseiluko presidente Beatriz Artolazabalek adierazi du aurreikusitako egutegia betetzen saiatuko dela.

Programen dekretuaren egoeraren inguruan galdetu du Josu Urrutiak eta Alazne Camiñak erantzun du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman duela jada bere txostena, eta bulegoaren komentarioak proposamenean barne hartuko dira eta ondoren Euskadiko Aholkularitzako Batzorde Juridikoari igorriko zaio. Informatzeko epea hiru hilabetekoa denez, irailean argitaratuko dela aurreikusten da.

Iñigo Egurenak galdetu du ea proiektuaren deialdiari begira kontziliazioa kontuan hartu den, Aste Santuko oporrak apirilean baitira. Alazne Camiñak erantzun du martxoaren 15a baino lehen argitaratzea aurreikusten dela, proposamenak aurkezteko epea oporrak hasi baino lehen bukatu dadin.

## **6. Hitzarmen proposamenak eta zuzeneko dirulaguntzak onartzea**

Onartzeko eta Gobernu Kontseilura eraman eta bertan behin betiko onartzeko aurkeztu da Osasun Sailaren, eLankidetzaren eta AIDA Asociación Ayuda, Intercambio y Desarrollo elkartearen arteko Ginea Bissaun osasun-sistema publikoa sendotzeko lankidetzaren hitzarmen bat.

Paul Ortegak hartu du hitza proposamena xehetasunez azaltzeko eta, zehazki, lau esku-hartze lineak:

- 1. linea: prestakuntza espezializatua;
- 2. linea: asistentzia-kalitatearen hobekuntza;
- 3. linea: ospitale-kudeaketarako laguntza;
- 4. linea: Euskadiraiko ebakuazio sanitarioak ebakuntza kirurgiko konplexuetarako.

Aurkezpena egindakoan, bozkatu egin da, eta proposamena aho batez onartu da bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

## **7. Galde-eskeak**

Josu Urrutiak galdetu du ea zer neurritan eragin diezaiokeen lankidetzari buruzko Espainiako lege berriak euskal legeari, adibidez, lankidetzarako funtsen erreserbako % 0,7ari dagokionez. Kontseiluko presidente Beatriz Artolazabalek onartu du eskumen-inbasioa egon litekeela, baina eragina zertan duen eta zer pauso eman behar diren aztertu behar da.

Paul Ortegak komentatu duenez, abenduko lurralde arteko batzordeak prozesuaren balorazio bat egin zuen eta ekarpenak egitea eskatu zen. Lankidetzari buruzko Espainiako legeak hobetu beharreko elementuak ditu, hala nola errekonozimendua eta lankidetzaren deszentralizatuaren aipamena, zeina ez den testuan agertzen. Paul Ortegak gehitu duenez, larrialdi-izapideari jarraikiz ari dira prozesua estatuan izapidetzen, eta, hori horrela, ekainean onartzeko prest egongo dela aurreikusten da, eta ez du uste lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal lege berria eraginpean hartuko duenik. Dena den, lege-aurreproiektuaren bertsioak jarraitu eta aztertu beharko dira.

IV. Gida Planaren ebaluazio galde-sortak noiz sozializatuko diren galdetu du Josu Urrutiak. Paul Ortegak erantzun du Kontseilu Errektoreari eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilura eramango direla emaitzak, eta kontraste-saio bat egingo dela.

Beste gairik planteatu ez denez, hurrengo Kontseilu Errektorearen dataren inguruan galdetu du Josu Urrutiak. Paul Ortegak erantzun dio ez dela data berririk aurreikusi, eta edukia izatean egingo dela bilkura berri baterako deialdia.

Bilkura amaitutzat eman da 13:20an.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenera paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE<sup>o</sup> Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,  
eLankidetzako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
eLankidetzako zuzendaria